

Diplomen Banaketa Goi Mailako Heziketa Zikloko Ikasleei

2009/06/19

Ekainaren 17an Mondragon Goi Eskola Politeknikoak 2007-2008 promozioko 107 ikasleei diploma banatuko die. Espezialitate hauetakoak dira ikasleak: *Industri Ekipoaren Mantenimendua* (33 ikasle), *Mekanizazio Bidezko Produkzioa* (16), *Proiektu Mekanikoen Garapena* (22), *Informatika Sistemen Administrazioa* (7), *Informatika-Aplikazioen Garapena* (2), *Informatika eta Telekomunikabide Sistemak* (9) eta *Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak* (18).

Ekitaldiari Institutu Politeknikoko Koordinatzaile Akademikoak, Jose Luis Larrabek, emango dio hasiera eta Vicente Atxak, MGEPEko Koordinatzaile Orokorrak, emango dio bukaera. Ekitaldian, Jesus M^a Perez Usabiagak, Dualiako Marketing Zuzendariak, hitzaldia emango du: "Ideia batetik proiektu batera".

